Erabiltzaile gida

Ataria	2
Мара	2
Bilatu	4
Erabiltzaile berria	4
Saioa hasi	5
Liburuxkak	5
Liburuxka gehitu	5
Sarrera	7
Gozatu	8
Begirada batean	9
Interesgune naturalak	10
Interesgune artistikoak	10
Zirkuitua	11
Мара	11
Urratsak	12
Gomendioak	12
Nire liburuxkak	12
Nire gustokoak	12
Liburuxka inprimatu	13
Euskarri digitalean eramateko	13
Paper euskarrian eramateko	13
Gogoko liburuxkak	13
Liburuxka salatu	13
Liburuxka partekatu	14

Ataria

Webguneko atariko goialdean menu bat dago <u>Gure herria (ataria)</u>, <u>Mapa</u>eta <u>Bilatu</u>atalekin. Honetaz gain, proiektua ezagutzeko testu labur dago.

Bukatzeko erabiltzaile berria sortu (<u>izen-ematea</u>) edo lehendik sortuta duzuen <u>erabiltzailearekin sar</u>tzeko aukera dago.

Мара



Mapak maila desberdinak ditu.

Lehenengo mailan, **Euskal Herri osoa** ikusten da, bere 7 herrialdeekin. Gainera bakoitzean ageri den zenbakian, herrialde horretan dauden **liburuxka kopurua** zein den ikus daiteke.

Zenbaki batean klik eginez, herrialdea gertuagotik ikusten da.

Irudian ikus daitekeen bezala, herrialdea euskal herri barruan non kokatzen den ikus daiteke. Baita bere barneko eskualdeak eta eskualde bakoitzean sortuak daude liburuxkak.

Ogi papur sistema bati esker, atzera egitea oso erraza da.



Eskualdean klik eginez, **Google**ren mapa bat zabalduko da. Mapa honetan Googlek eskaintzen dituen bistak erabiliz (mapa edo satelite), erabiltzaileek sorturiko liburuxkak ageri dira. Gainera, Google mapa guztiek dituzten **funtzionalitateak** erabiltzeko aukera ematen du.

- Mapa mugitu: Mapan klik egin eta botoia askatu gabe sagua arrastaka eraman.
- Zooma handitu eta txikitu: Maparen eskuin beheko partean eta + botoiak erabiliz edo CTR tekla zanpatua izanda eta saguaren gurpiltxoa mugituz.



Liburuxkaren ikonoan klik eginez, informazio osoa kargazten da.

Berriro ere, ogi papurren sistemak, modu erraz eta azkar batean, maparen maila desberdinetara joateko aukera ematen du.

Bilatu

LIBURUXKA BILATZAILEA

LIBURUXKA EZAUGARRIEN ARABERA BILAKETA

Herrialdea		Eskualdea	•)	Liburuxka egilea	· · · · · ·
42 liburuxka daude guztira					Filtroak ezabatu
Bilaketa:)			
Construction and the second sec					
Liburuxka izena	۷	Herrialdea	Eskualdea		Egilea
Liburuxka izena Lamixeneko lamiak	v (?)	Herrialdea Nafarroa	Eskualdea Ipar mendebaldea		Egilea admin
Liburuxka izena Lamixeneko lamiak Turismo Liburuxka		Herrialdea Nafarroa Gipuzkoa	Eskualdea Ipar mendebaldea Bidasoa Beherea		Egilea admin mharreguy
Liburuxka izena Lamixeneko lamiak Turismo Liburuxka Aguraineko kuadrila	۷ ۲ ۲ ۲	Herrialdea Nafarroa Gipuzkoa Araba	Eskualdea Ipar mendebaldea Bidasoa Beherea Arabako Lautada		Egilea admin mharreguy lautadakoOrdezkaria

Filtro ezberdinak aplikatuz liburuxka guztien artean bilaketak egiteko aukera dago.

Herrialdea, eskualdea edo/eta egilea aukeratu daiteke, honetaz gain bilaketa eremuaren bidez nahi dugun testua bilatu dezakegu.

Erabiltzaile berria

Erabiltzaile berria sortzea oso erraza da. Hona eman behar diren pausuak:

- 1. Menu nagusian agertzen den giltzarrapoaren ikonoan klik egin.
- 2. "Kontua sortu" botoia sakatu.
- 3. Galdetegia bete
 - a. Erabiltzaile izena
 - b. E-posta helbidea
 - c. Pasahitza (2 aldiz)
 - d. Datu pertsonalei dagozkion datuen trataerari buruzko informazioa
 - e. Robota ez zarela adierazi
- 4. "Erregistratu" botoia sakatu

Erabiltzailea sortua dagoenean, norberak jarritako datuekin saioa hasteko aukera izango du.

Saioa hasi

Saioa hasteko, lehenengo erabiltzailea sortua egon behar du. Ondoren:

- Menu nagusian agertzen den giltzarrapoaren ikonoan klik egin.
- Zure erabiltzaile izena eta pasahitza idatzi.
- "Sartu" botoia sakatu.

Saioa hasi ondoren, norberak bere izenean klik egiten badu, erabiltzailearen menua agertuko zaio. Hona aukerak:

- Nire datuak: Nork bere datuak aldatzeko aukera ematen du.
- Nire liburuxkak: Nork berak sortutako liburuxka zerrenda.
- Liburuxka gehitu: Liburuxka berria sortzeko.
- Nire gustukoak: Faborito modura markaturiko liburuxkak.
- Irten: Saioa amaitzeko.

Liburuxkak

Webguneko atal garrantzitsuenak dira, gure herri edo hiriko txoko bat ezagutarazteko turismo-liburuxkak dira. Erabiltzaile bakoitzak nahi adina liburuxka sortu ditzake. Sortutako liburuxkak modu pribatuan gorde daitezke edo argitaratu eta denon eskutara utzi.



Liburuxka gehitu

Liburuxka gehitzen dugunean sistemak liburuxka sortzeko datu minimoak eskatuko dizkigu, informazio honekin liburuxkako sarrera osatuko dugu:



LIBURUXKA EDITATU

- Turismo-liburuxkaren izenburua: Liburuxkari emango diozun izen orokorra.
- Herriaren izena: Zein herritan kokatzen den liburuxka.
- Taldearen izena: Liburuxka taldean egiten bada taldea identifikatzeko izena. Liburuxkaren egilea(k).
- **Ikasmaila**: Taldearen ikasmaila (hutsik utzi daiteke).
- Eskualdea: Liburuxka zein eskualdetan dago kokatuta (liburuxka mapan kokatzeko beharrezkoa da).
- Azala: Liburuxkaren azalean gehituko den irudia.
- Liburuxka mapan kokatu:
 - Bilatu atalean herriaren izena idatzi .
 - Ateratzen den zerrendan zuzena aukeratu.
 - Manipulatu mapa nahi duzun tokia bilatzeko.
 - Mapa gainean klik egin liburuxka kokatu nahi duzun tokia aukeratzeko.
 - Egokitu zoom-a zuk nahi duzun tamainara.
- **Argitaratua**: Liburuxka publiko egitea nahi duzunean argitaratua dagoela adierazi behar da, sortzerako momentuan ez argitaratzea aholkatzen dugu.

Informazioa betetzean sakatu "**Gorde**" botoia eta liburuxka sortuta egongo da. Liburuxka sortzean gehitutako informazioarekin liburuxka sortuta dago. Liburuxkak zazpi atal ditu eta bakoitza ikono batekin adierazi dugu:



Atal bakoitzean sartzeko dagokion ikonoan klik egin.

Atal batean lehen aldiz sartzen zarenean, datuak sartzeko galdetegia aterako da (baimena baduzu). Aurretik zerbait idatzia badago, informazioa erakusten da. Informazioa editatzeko sakatu eskuinean dagoen arkatzean. Liburuxka bat ikustean arkatza ikusten ez baduzu editatzeko baimenik ez duzula esan nahi du.



Eskuin aldean beste menu bat dago, liburuxka inprimatu, gustuko bezala markatu, salatu eta partekatzeko aukerarekin.



Sarrera

Liburuxkaren portada ageri da. Sortzerakoan emandako informazio gehiena sarreran ikusten da. Sarrera editatzean aurretik emandako informazioa aldatzeko aukera dago.





Atal hau osatzen hasteko, liburuxkaren aurkezpena egingo duen pertsonaia bat asmatu behar da. Aurkezpena euskaraz eta gazteleraz prestatu eta bisitariak erakartzeko esaldi iradokitzaileak idatzi.

Herriaren	i izena gozatu
Pertsonaiaren izena	Aurkezpena
Pertsonaia Pertsonaiaren irudia Bereccore: echioj: sobro pro	B $I \mid I : II = 4 \epsilon \mid e = ?$ Loom sum address time, considerativ addicating etit. Nuon one voluget indus coupleds stated formula risk at entroposets purus timoro rit. Phaselae elementum nite opti neous earlier to buccho. Phaselae is data etil.e. efforur preserva massa e, ventous cutate resourt. Ventoum i d tinodunt meuris, in ac metus isonet adord citum mestimus.
	body p d
Bisitariak erakartzeko esaldiak B I = = = + = = ?	Presentación
Welcome!	B I ≓ = ± + ± = = ?
zanuć na pusenu Biplora, descubra, suefia (Lit ulternorger monuse adio, at arret alendit hunc honcus is. Pasce eget consecutive sales: Consec congue ellertar vices. Vestalbulum finitus, nunc ac obendium petitum, and nich faugite naue, nee condimentum ell (alu) se test. Presentu en nodo a una ulternorper silquem. Bed sit arret venentis massa
North n	bady p

- Pertsonaiaren izena: Asmatutako izena idatzi.
- Pertsonaiaren irudia: Pertsonaiaren irudi bat sortu edo lortu behar da fitxategi moduan atxikitzeko.
- Aurkezpena: Turismo-liburuxkaren aurkezpena euskaraz. Testu hau ondoren liburuxkan idatziko denez kontutan hartu ezin dela oso luzea izan.
- **Presentación**: Turismo-liburuxkaren aurkezpena gazteleraz. Testu hau ondoren liburuxkan idatziko denez kontutan hartu ezin dela oso luzea izan.
- **Bisitariak erakartzeko esaldiak:** Esaldi motz iradokitzaileak idazteko pentsatutako atala. Testu hau ondoren liburuxkan idatziko denez kontutan hartu ezin dela oso luzea izan.

Aurkezpenak eta esaldiak idazterakoan editore sinple bat dago. Letra beltza edo etzana idatzi daiteke bertan. Zerrendak osatu eta estekak idatzi. Kontuan izan estekak webgunean erabilgarri egonen direla bakarrik, liburuxkan ez dira ikusiko.

Datuak gorde ondoren "Herriaren izena" gozatu atalaren aurreikuspena ikusiko da.





Laburbilduz, orrialde honek eskatzen du esateko non dagoen herria, zein diren haren erliebe-elementu nagusiak, eta bitxi deritzogun beste informazioren bat. Hartara bisitariek, begirada batean, herriaren ikuspegi orokorra edukiko dute. Horrekin batera, herriaren argazki bat ere jarri beharko da.

- Herriaren argazkia: Liburuxkaren herriaren argazki orokor bat txertatu.
- **Kokapena**: Herriaren kokapen geografikoaren azalpena. Testu hau ondoren liburuxkan idatziko denez kontutan hartu ezin dela oso luzea izan.
- Erliebe-elementuak: Herriaren erliebe-elementu nagusiak aipatu: erreka, mendia, etab. Testua inprimaturiko liburuxkan idatziko denez, bere luzera kontuan har ezazu.
- Bestelako informazioa: Bitxia edo adierazgarria izan daitekeen bestelako informazioa eman. Testua inprimaturiko liburuxkan idatziko denez, bere luzera kontuan har ezazu.





Interesgune naturalak



Herrian zer ikusi adierazi behar da hemen. Bi motatako interesguneak identifikatuko dira: naturalak eta artistikoak. Interesgune guztiek informazio berdina izango dute: **izena**, **irudia** eta **deskribapena** (laburra). Lehenengo bi interesgune natural osatuko ditugu.



Interesgune artistikoak

Aurreko puntuan bezala, baina kasu honetan interesgune artistikoak adieraziz.





Bisitariari herrian barna zirkuitu bat proposatuko diogu aurretik azaldutako interesguneak ezagutzeko. Horretarako zirkuituko mapa bat lortu behar dugu, mapan zirkuituko urratsak kokatu eta urrats bakoitzaren azalpen bat osatu beharko dugu. Bi atal bereizi daitezke sortzerako orduan: mapa eta urratsak.

Mapa

Turismo-liburuxkak bi euskarri posible ditu; digitala eta paperezkoa. Gure herria webgune bat den aldetik mapa interaktibo bat jartzeko aukera dago. Bestetik, liburuxka paperera pasa nahi badugu ezin dugu mapa interaktiboa erabili, beraz maparen irudi bat behar dugu ere. Honetarako maparen edizioan bi eremu bete behar dira:

	Zirkuitua	
	Zirkuituaren mapa Seleccionar archivo Ningún archivo seleccionado	
Zirkuituaren iframe-a <iframe height="480" src="https://www.goo</th><th>gle.com/maps/d/embed?mid=1iVzirO4pjXdAZxRMAAOi8OLpMd8wjW7W" width="640"></iframe>		
Legenda Norabidea	a: 🖚 Abiapuntua: 💎 Helmuga: 💙 Erreferentzia puntua: ☆ Interesguneak: 🔰	k

• **Zirkuituaren mapa**: Zirkuituaren maparen irudi bat (paperean joango dena). Irudian mapaz gain zirkuitua ere marraztu beharko da, abiapuntu, helmuga eta interesguneekin. Honetan laguntzeko legendako ikonoak eskaintzen dira webgunean. Maparen informazioaren azpian dagokion ikonoan klik egitez ikonoak deskargatzen dira:



• **Zirkuituaren iframe-a**: Maparen bertsio interaktiboa badugu, bere *iframea* txertatu daiteke eremu honetan. Honela liburuxka web bidez bistaratzean maparekin elkarreragin daiteke. Eremu hau betetzen ez bada, liburuxka digitalki ikustean paper euskarriko mapa berdina erakusten da.

Urratsak

Zirkuituak bost urrats izanen ditu, abiapuntutik hasita 4 interesguneak zeharkatu eta helmugara iritsi arte. Urrats bakoitzean erreferentzia-puntuen azalpena gehitu behar da eta ibilbidearen deskribapena eginez.

Zure zirkuituaren lehen urratsa	▼ → ≭	
Erreferentzia-puntuen azalpena		
Abiapuntutik lehen interesgunera joateko,		
Deskribapena		Zure zirkuituaren lehen urratsa
B I I II # # ■ ♥ ?		Abiapuntutik lehen interesgunera joateko,
		Deskribapena
		Lorem Ipsum dolor sit amet, consectetur adipiscing elit. Praesent arcu quam, auctor at justo ut, aliquet gravida arcu. Suspendisse non dictum lacus, sit amet fringilla.
	A	

Gomendioak



Liburuxka bukatzeko bisitarientzako gomendioak ematea falta da. Testu editore sinple baten bidez esaldi motak idatziko dira; bi euskaraz, bi gazteleraz eta bi ingelesez.

Gomendioa euskaraz	-
B I ﷺ ≌ ∰ ∰ = ∞ , ?	Arropa erosoa ekarri

Gomendioak gordetzean liburuxka bukatuta dago.

Nire liburuxkak

Nire liburuxkak atalean norberak sortutako liburuxka guztiak ikusten dira. Kolore biziagoz argitaratuta dauden liburuxkak daude, eta kolore apalez argitaratu gabe daudenak. Batean klik egiten, liburuxka ikustera sartuko gara.



Nire gustukoak

Atal honetan gustuko bezala adierazitako liburuxkak ikusten dira (zureak eta zureak ez direnak). Batean klik eginez liburuxka ikustera sartuko gara.



Liburuxka inprimatu

Norbere liburuxkak edo beste erabiltzaileek argitaratutakoak inprimatu daitezke, bertaratu eta herria ezagutzeko. Horretarako bi formatu daude, euskarri digitalean eramateko edo paper euskarrian eramateko.

Euskarri digitalean eramateko



Honetarako liburuxka barruan, goian eskuinean dagoen menua erabili, liburu formako ikonoa.

Paper euskarrian eramateko



Liburuxka paper euskarrian lortu nahi baduzu, liburuxka moduan ikusteko inprimaketa berezi bat prestatu dugu. Liburuxka pdf formatura pasako da, baina orriak desordenatuta eta buelta emanda ikusiko dituzu, ondoren zuzenean liburuxka paperean inprimatzen baduzu liburu gisara ikusteko prest egonen da.

Honetarako liburuxka barruan, goian eskuinean dagoen menua erabili, inpresora formako ikonoa.

Gogoko liburuxkak



Liburuxka bat ikusten zaudenean gogoko bezala markatu nahi baduzu klik egin menuan dagoen bihotzean. Bihotza berde jarriko da. Horrela liburuxka zure gogokoen atalean azalduko da. Gogokoetatik kendu nahi baduzu egin klik berriro bihotzean eta marroi jarriko da berriro gogokoen ataletik desagertuz.

Liburuxka salatu 👎



Liburuxka bateko edukia ez bada egokia salatzeko aukera dago. Sistemako administrariak salaketa jaso eta aztertu egingo du, horren arabera liburuxka kendu edo ez erabakiko da.

Salaketa egiterakoan zergatia adierazi beharko da galdetegi baten bitartez.

		z naiz robota	
			Pribetuteaune - Seldintze

Liburuxka partekatu

Liburuxka beste norbaitekin partekatu nahi baduzu, modu errazean liburuxkako esteka lortu dezakezu. Kontutan izan beste norbait sartu ahal izateko liburuxka argitaratuta egon behar dela.

Ikonoan klik eginda liburuxkaren esteka kopiatuta izango duzu, ondoren edozein lekutan itsatsi dezakezu: sare sozialak, korreo elektronikoa, etab.

Urtero, irailaren hasieran, liburuxka guztiak gordeko dira eta webgunea hutsik geratuko da, ikasturte berriari ateak zabalduz.